

Funtzezko baliabideak

HoloMeet-ek bere arrakasta zabaltzeko eta bermatzeko baliabide teknologikoak eta beste baliabide estrategiko batzuk erabiltzen ditu. Teknologian, softwarearen eta hardwarearen garapena eta bezeroarentzako zerbitzua funtsezkoak dira, plataformaren kalitatea eta fidagarritasuna eta eraginkortasuna handitzeko. Hau, beste enpresetatik lortzen dugu, makina edo web desberdinen erosketak eginez.

Gainera, boluntarioek eta laguntza teknikoaren taldeek erabiltzaileen esperientzia hobetzeko eta arazoei erantzun azkarra emateko lan egiten dute. Finantzak eta diru sarrerak ere ezinbestekoak dira, zerbitzarien mantentzea, marketin-kanpainak eta plataforma zabaltzeko inbertsioak egiteko, horrela diru-sarrerak sortuz eta HoloMeet merkatuan finkatuz.